

Marilo Betilo Alegiako liburutegian

ALEGIA. DV. Duela 17 urte sartu zen Patricia Franco antzerkiaren munduan. Zergatik? Berak ere ez dauka oso garbi. Betidanik gustatu izan zaizkit marrazki bizidunak, antzerkia, baina ez dakit oso ondo zergatik eta nola sartu nintzen antzerkigintzan, batez ere zergatik sartu nintzen. Hamar bat urte beranduago ipuinak kontatzeari ekin zion eta horrela dabil azken 7-8 urteetan, antzerkia eta ipuinak uztartuz. Joan den astelehenean Alegiako Udal Liburutegian Marilo Betilo obra antzeztu zuen, adi adi egon ziren ume mordoxka baten aurrean.

Patricia Franco Donostiako Behibi ' s taldeko partaidea da, partaide garrantzitsua gainera, bera baita taldeko aktore bakarra. Ipuinak kontatzen dizkie umeei, baina oso modu berezian. Beti erabiltzen ditut txotxongiloak, musika, Ipuin kontaketak dira baina antzeztuak.

Obrak sortzerakoan taldeko zuzendariaren, teknikariaren edo musikariaren laguntza izaten du, baina gero obra berak bakarrik antzezten du. Lehenbizi ipuin asko irakurtzen ditu eta horien artetik bat aukeratzen du, antzeztuta ondo gera daitekeela uste duen bat. Egin behar den lehenengo gauza umeen arreta erakartzea da, hau da, modu desberdinak erabiliz umeei helarazi behar zaien mezua zera da, ' Ei, hemen nago, zuen aurrean, eta adi egon ia orain zer datorren ' , halako zerbait. Hori lortzeko, hainbat elementu erabiltzen ditu Patricia: panpinak, txotxongiloak, zaratak, ahots ezberdinen erabilera, musika edo fikziozko pertsonaia bat, adibidez, Marilo Betilo. Nik nahiago dut ipuinak kontatzerakoan pertsonaia baten barruan sartu, askoz erosoago sentitzen naiz horrela eta uste dut modu honetan ipuin baten kontaketa dibertigarriagoa eta erakargarriagoa izan daitekeela.

Txotxongilo festa

Behibi ' s taldeak gehienbat txotxongilo antzerkia egiten du baina Patricia bere antzezpenetan txotxongiloak aktore lanekin nahasten ditu, Marilo Betilon bezala. Obra honetan, hasieran txotxongiloak agertzen dira, hauen bidez Patricia umeen arreta erakartzen du eta nolabait Marilo Betilo pertsonaia datorrela adierazten du. Ondoren, Marilo Betilo agertzen da. Hau emakume bat da, lotatik esnatu berria dena, jantzi biziak eta koloredunak ditu eta betaurreko handi batzuk daramatza. Hasieran umeekin hitz egiten du pixka bat, zertara etorri diren, zer egiten duten bere etxean, eta antzeko galderak egiten dizkie. Ondoren bi ipuin kontatzen dizkie, Baba majikoak eta Osaba Otso. Baina esan bezala, Patricia ipuinak antzeztu egiten ditu: narratzailea eta elkarrizketak bereizten ditu eta ahots ezberdinak erabiltzen ditu pertsonaia bakoitzarentzat. Horrez gain, ahotsarekin egindako soinu efektuak, onomatopeiak, sartzen ditu. Esan bezala, horiek guztiak umeen arreta erakartzeko.

Arreta hori bereganatzea zaila ote den galdetu genion Patriciai. Batzuetan bai, besteetan ez. Kanpoko faktore asko daude umeen arreta erakartzean

eragiten dutenak. Obra berdinen antzezpen bakoitza oso desberdina da. Alde batetik, ez dakizu zein ume etorriko zaizkizun eta zer jarrera hartuko duten. Nahikoa da zu antzeztan ari zaren bitartean publikoko ume bat hitz egiten hastea gainerakoak berari begira jartzeko. Horrelakoetan oso adi egon behar duzu eta zeharka bada ere, ume hori isil dadin saiatu. Bestalde, obra antzeztu behar den lekuak ere eragin handia dauka. Lekuaren argitasunak, tamaianak, sabaiaren altuerak, horrelako ezaugarriek asko eragiten dute antzezlanaren arrakastan. Horregatik, nahiz eta asko entseiatu eta pentsatu obrak arrakasta izango duela, gero kanpoko faktore horietakoren batek huts egiten badu umeen arreta gal dezakezu eta arreta hori berreskuratzen ez baduzu antzezlanak ez du arrakastarik izango. Kanpoko faktore horien menpe egon beharra da Patriciari ipuin kontalaritzatik gutxien gustatzen zaion alderdia. Faktore horiek ezin dituzu kontrolatu, ez daude zure esku eta ez badira zure aldekoak, antzezpena gaizki irten daiteke. Gehien gustatzen zaiona berriz, ondo atera den antzezlan baten ondoren sentitzen den poza edo asebetetzea da. Gaurkoa, adibidez, ondo irten dela iruditu zait eta orain oso gustora sentitzen naiz, azaldu zuen. Horretan ez dago zalantzarik, umeek barre ugari egin baitzuten Marilo Betilorekin. Gainera, antzezlana amaitu eta Marilo Betilo desagertu zenean guztiak zain geratu ziren, zeuden lekuan eserita mugitu ere egin gabe, ea Marilo Betilo berriz agertzen ote zen.

Ipuin kontaketa horiek liburutegietan eta eskoletan egin ohi dira. Jendeak gero eta ohitura gehiago dauka ipuin kontaketatara joateko, esan zigun Patriciak. Lana badago arlo honetan.

'Marilo Betilo' antzezlanaz gain, Behibi 's taldeak beste bi obra ditu une hauetan esku artean. Ni, arratoi eta Rosi Erosi. Bi hauetan ere txotxongilo eta aktore lana uztartzen ditu Patriciak. Rosi Erosi, gainera, oraindik estreinatzeke dago. Orain hasiko naiz Donostiako zenbait eskoletan antzeztan. Estreinaldi ofiziala, ordea, Tolosako Txotxongiloen Jaialdian egingo da.